

**Gipuzkoako
Aldizkari
Ofiziala****Boletín
Oficial de
Gipuzkoa****66**

2022ko apirilaren 6a, asteazkena

1**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

217/2022 Foru Agindua, apirilaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen baita 169/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituen.

2022ko martxoaren 25ean argitara eman zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN martxoaren 17ko 169/2022 Foru Agindua, 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituen.

Foru agindu horretan ezartzen denez, modalitate mekanizatua aukeratzen duten zergadunek jarduera ekonomikoetatik datozen errentak lortu badituzte eta etekin garbia kalkulatzeko modalitate sinplikatua aplikatzen badute, autolikidazioa prestatzeko balio duten proba dokumentuak ez ezik, foru agindu horren II. eranskinean ageri den 109 ereduaren 6. eranskina ere aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, horretarako eratutako bulegoetan.

Gainera, esaten da 6. eranskin hori inprimatzeko moduan izango dela bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik, <https://egoitza.gipuzkoa.eus> helbidean sartuta, bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialetik, <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/errenta> helbidean, bai Zergabidea plataforman eskura dagoen laguntza programatik.

Berriki onartu den apirilaren 5eko 1/2022 Foru Dekretu-Arauak, egungo krisi energetikoa, prezioen gorakada eta Ukrainaren inbasioa izaten ari diren inpaktu ekonomikoa arintzeko premiazko zerga neurriak onesten dituenak, premiazko neurriak ezartzen ditu tributuen esparruan zergadunen likidezia falta arindu eta Ukrainiaren inbasioak eta ezohikoak diren beste zirkunstantzia batzuek ekonomian duten inpaktu negatiboari aurre egiteko. Ezohiko zirkunstantzia horien artean dago, esate baterako, energiaren eta lehengaien prezioen gorakada dela eta ekoizpen kostuek izan duten hazkundera, bereziki bi sektoretan eragiten duena: garraioan eta lehen sektorean.

Alde horretatik, aipatutako foru dekretu-arauak aparteko neurriak ezartzen ditu 2021eko zergaldian aplikatzeko, eta zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate sinplifikatuan etekin garbia zehazteko aplikatuko dira, bai izaera orokorrekin eta bai, bereziki, nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan eta merkantzien errepide bidezko garraio jardueran. Zehazki, amortizazioengatik, narriadurak eragindako galerengatik, errentamendu, lagapen edo balio-galera gastuengatik, eta gastu justifikagaitzengatik izaera orokorrekin aplika daitezkeen gutxipen portzentajea 100eko 10etik 100eko 15era igotzen da; nekazaritza eta abeltzaintza jardueren kasuan, portzentaje hori 100eko 75etik 100eko 90era igotzen da aurreko urteko eragiketen bolumena 30.000 eurotik gorakoa izan ez denean, eta 100eko 35etik 100eko 70era, beste edozein kasutan; eta merkantzien errepide bidezko garraio jardueran, 100eko 45etik 100eko 70era handitzen da gutxipen portzentaje hori.

Horrek guztiak beharrezko egiten du 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga autolikidatzeko sistemak aldaketa horietara egokitzea izaera orokorrekin eta, horrez gain, 109 ereduaren 6. eranskina aurreko paragrafoan adierazitako gastuengatik aplikagarri diren gutxipen portzentaje berrietara moldatzea, eta, horretarako, nahitaezkoa da martxoaren 17ko 169/2022 Foru Aginduaren II. eranskineko edukia foru agindu honen eranskinean ageri den edukiarekin ordeztzea.

Ondorio horietarako, aipatutako 5/2022 Foru Dekretu-Arauaren xedapen gehigarri bakarrak dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bat onetsiko duela 169/2022 Foru Agindua aldaketa horietara egokitzeko.

Horrenbestez, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea 169/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, 2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituen.

2021eko zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikidatzeko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezartzen dituen martxoaren 17ko 169/2022 Foru Aginduaren II. eranskineko edukia foru agindu honen eranskinean ageri den edukiarekin ordeztzen da.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia, 2022ko apirilaren 5a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (2115)

ERANSKINA

